

ZAMBRANA

— ARABA / ÁLAVA —

Zanbrana Gasteizetik 29 km-ra eta Miranda de Ebrotik 8 km-ra dago, eta Ebro, Zadorra eta Inglares ibaiek inguratzen dute.

Leku horri buruzko lehenengo aipamen dokumentala 1058an egindako dohaintza batzuetakoa da. Dokumentu horietan, San Bizente Martiria eliza zaharra ere aipatzen da.

Mendozatarren leinua inguru horretako aipagarrietakoa izan zen. Inguruak balio estrategiko eta ekonomiko handia zuen. Noble horien maioraizkoaren berri herriaren goiko aldean kokatutako XIV. mendeko dorre-gotorlekuak ematen digu. XV. mendean auzitan aritu ziren Fernán Pérez de Ayala familiaren jabetzengatik eta garrantzi handiko beste jaurerri batzuegatik, hala nola Estúñigarenak eta Sarmientorenak.

Herrixka hori Berantevillaren jurisdikzioaren mende egon zen 1744. urtera arte. Urte horretan, Filipe V.a erregeak hiribilduaren titulua eman zion. Mirabel markesaren jaurerriaren mende egon zen. Aldi horretakoa da Gurutzetokia, burdinazko gurutzea duen monolitoa, estalki eta guztikoa. Gurutze hori, harlanduzkoa, XVIII. mendean landuta dago, eta Miranda de Ebrorako mendealdeko irteeraren dago. Arabako lurraldean ondoen landuta eta kontserbatuta dagoenetako bat da.

Gaur egun, Zanbrana, Berantevillarekin eta Armiñonekin batera, Lacorzanilla udalerriaren barruan dago, eta Bergantzu, Ozio eta Zabalate ere barruan hartzen ditu. Ozio defentsa-izaerako gartzela baten aurriak daude, XI. eta XII. mendeetan izan zuen goraldia. Zanbranako hirigune zaharrean fatxadetan armariak dituzten oinetxeak eta Santa Luzia eliza nabarmendu behar dira.

Zambrana está situada a 29 km de Vitoria y a 8 de Miranda de Ebro, en un terreno circundado por los ríos Ebro, Zadorra e Inglares.

La primera referencia documental sobre el lugar se encuentra en unas donaciones realizadas en 1058. En dichos documentos se menciona también la antigua iglesia de San Vicente Mártir.

El linaje de los Mendoza fue uno de los más notables de esta zona, de gran valor estratégico y económico. Del mayorazgo de estos nobles da testimonio una torre fuerte del siglo XIV, en la parte más alta de la villa. Durante el siglo XV se pleitearon propiedades de la familia de Fernán Pérez de Ayala y otros señoríos de gran importancia, como los Estúñiga y los Sarmiento.

Fue aldea sujeta a la jurisdicción de Berantevilla hasta 1744, año en que el rey Felipe V le concedió el título de Villa. Perteneció al señorío del Marqués de Mirabel. De esta época nos queda el Humilladero, dotado de cubierta que ampara un monolito con una cruz de hierro. Este crucero, de fábrica de sillería labrada en el siglo XVIII, está dispuesto en la salida occidental hacia Miranda de Ebro, y es uno de los mejor trabajados y conservados del territorio alavés.

Hoy Zambrana está integrada, con Berantevilla y Armiñon, en el municipio de Lacorzanilla, comprendiendo Berganzo, Ocio y Portilla. Ocio conserva las ruinas de un castillo de corte defensivo que mostró su mayor esplendor en los siglos XI y XII. En el interior del casco urbano de Zambrana destacan sus casas solares, con escudos en sus fachadas, y la iglesia de Santa Lucía.

Santa Luzia eliza / Iglesia de Santa Lucía

ZANBRANAKO ELIZA Santa Luziari dago eskainita. Eraikin horrek sorreratik gaur egunera arte izan dituen zaharberritze ugariak kanpotik ikus daitezke. Gaur egun oinplano angeluzuzena du, eta jatorrizko bolumena aldatzen duten gehigarriak ditu, hala nola elizpea, dorrea eta estalkietako altuera-aldaketak. Eraikina harlanduxkoan

LA IGLESIA PARROQUIAL de Zambrana está consagrada a Santa Lucía. Son evidentes y palpables desde el exterior las numerosas reformas que ha sufrido este edificio desde su primera fundación hasta nuestros días. Hoy se presenta como un templo de planta rectangular, con añadidos que alteran su volumen original, como es

dago eginda, eta elizpea harlangaitzekin ixten da, erdi-puntuko bi arku handiren azpian.

Tenpluan sartu aurretik, San Bizente Martiriaren eliza zaharraren aztarna batzuk ikus ditzakegu. Eliza XVII. mendearen hasieran eraitsi zuten. Badirudi gaur egungo elizaren ipar-ekialdean zegoela, 200 m-ra. Eliza zaharreko materialak erabiliz, Santa Luzia eliza handiagotu eta zabaldu egin zuten, eta Zanbranako elizaren titulua ere azken horrek eskuratu zuen. Orduan, Domingo Ibarrola maisu harginak barruko gurutze-gangak eraiki zituen (hala ageri da 1696ko iturri dokumentaletan) eta San Bizente eliza zaharreko ornamentazio-pieza aipagarrienak elizpera ekarri ziren.

Badirudi birmoldaketa horren emaitza izan zirela aurki daitezkeen ornamentazio-motibo urriak, eraikinaren kanpoko paretetan zein kanpandorreko erdi-puntuko arkuetan. Kanpandorrea bolaz apaindutako inpostak bererabiliz dago eginda. Hala ere, ez dira dobelak berez, arku moduan jarritako bestelako piezak baino. Eraikinaren beste angelu batean, estalkiaren azpian horman sartuta, motibo begetal batzuk ere ikus daitezke, hala nola elkar gurutzatutako loreak. Motibo horiek apur bat higatuta daude.

1980ko hamarkadan, San Bizente eliza zaharreko zenbait pieza erromaniko aurkitu zituzten. Ateburua eta Euskal Herrian oso urriak diren tinpano bat dira. Biak ikus daitezke elizpean.

Gaur egun, tinpanoa jatorrizko portadatik bereizita dago eta, beraz, baliteke gai ikonografikoa osatugabe egotea. Zoritxarrez, gaur egunera arte oso kaltetuta iritsi da, irudien erliebea ia-ia desagertuta dago, eta, beraz, ez da posible bere garaian izan zituen taila eta kalitatea antzematea. Nolanahi ere, irudikapenak identifikatu eta ezagutu egin ditzakegu.

Erdialdean Amabirjina eta Haurra daude, bolaz apaindutako mandorla baten barruan, bi aingeruk eutsita, alboan bi lehoi dituztela, bat albo bakoitzean. Multzoa XII. mendearen bigarren erdian koka daiteke. Tinpanoko irudi nagusia markoztatzen duten lehoi horiek ohikoak dira beste tinpano batzuetan (Jacako "justizia-lehoia" aipa daiteke). Tinpanoko protagonistak Amabirjina eta Haurra dira, tro-nuan eserita eta bedeinkapen-keinua eginez. Gai hori tinpano batean kokatzea ez da oso ohikoa inguru hauetan, baina bai Katalunian, leku horretan du garapenik handiena. Ikonografia horren jatorria Kristo maiestatearena da, mandorla baten barruan. Ondoren, Andre Mariarenganako kultura hartu zenean, garrantzia hartu zuen, eta gaiak egokitu egin behar izan ziren, Mariaren eginkizuna nabarmentzeko.

Eszena hori markoztatuz, erdi-puntuko arku moduan, hamaika dobelak daude. Dobela kopuruari erreparatuz, ba-

el caso del pórtico, la torre y los cambios de altura de las cubiertas. La fábrica del edificio es de sillarejo, frente a la mampostería con la que se cierra el pórtico, bajo dos grandes arcadas de medio punto.

Antes de ingresar en el templo, podemos contemplar algunos de los vestigios de la antigua iglesia de San Vicente Mártir, que fue demolida a principios del siglo XVII. Ésta parece que se encontraba 200 m al noreste de la actual de iglesia. Con los materiales de la más antigua se amplió y engrandeció la de Santa Lucía, cediéndole también el título de iglesia parroquial de Zambrana. Fue entonces cuando se construyeron las bóvedas de crucería interiores por el maestro cantero Domingo Ibarrola, como atestiguan las fuentes documentales de 1696, y se trasladaron las piezas ornamentales más destacables de la antigua iglesia de San Vicente, que hoy podemos contemplar bajo el pórtico.

Fruto de esta remodelación parecen ser los pocos motivos ornamentales que encontramos, tanto en los muros exteriores del edificio, como en las arcadas de medio punto del campanario, realizado a base de reutilizar unas impostas decoradas con bolas. Sin embargo, no se trata de dovelas propiamente dichas, sino de piezas ajenas dispuestas a modo de arcada. En otro de los ángulos del edificio, empotrados bajo la cubierta, también pueden verse algunos motivos vegetales, como flores enlazadas, que se han conservado algo erosionadas por el paso del tiempo.

Se encontraron varias piezas románicas en la década de 1980, procedentes de la antigua iglesia de San Vicente. Se trata del dintel y de uno de los escasos tímpanos del País Vasco, que se pueden observar bajo el pórtico.

El tímpano se encuentra hoy exento de su portada original, por lo que la temática iconográfica puede resultar incompleta. Lamentablemente ha llegado hasta nuestros días muy dañado, casi anulado el relieve de las imágenes, por lo que no es posible apreciar la talla y calidad que en su día debieron de tener. No obstante, podemos identificar y reconocer las representaciones.

En la parte central encontramos una escena de la Virgen con el Niño, dentro de una mandorla adornada con bolas, sostenida por dos ángeles, acompañados a su vez por dos leones, uno a cada lado. El conjunto podría situarse en la segunda mitad del XII. Estos leones que enmarcan la figura principal del tímpano son habituales en otros tímpanos, como "el león de justicia" de Jaca. Los protagonistas del tímpano son la Virgen y el Niño entronizados y con gesto de bendición. La colocación de este tema en un tímpano no es muy común en estos lugares, pero sí en Cataluña, donde tiene su principal desarrollo. Esta iconografía proviene de la de Cristo en majestad, dentro de una mandorla. Posteriormente, cuando se adoptó el culto

dirudi ikonografia oso zehatza dela. Hala ere, badirudi do-
bela horietako gaiak ez diola erantzuten aurretik definitu-
tako programa bati. Irudi horiek Erdi Aroko bestiarioetan
oinarrituta daude. Ezkerretik eskuinera, honela deskriba
daitezke: lehenengoan, lepo luzeko bi hegazti daude; er-
dialderantz biratuta daude, lore bat ikusteko. Bigarrenean,
felidoa dirudien irudia dago, eta burua biratuta dauka. Hiru-
garrena bigarrenaren antzekoa da: beste felido bat isatsean
hozka egiten. Laugarrena ez dago oso egoera onean, bai-
na badirudi oilarra edo, agian, lehoia dela, burua buelta-
tuta eta hankak jasota dituela. Bosgarren irudian hegazti
bat atzaparrekin ageri da, arrain bati eusten. Seigarrenean,
multzo ikonografikoaren erdialdean, isats bikoitzeko sire-
na ageri da. Zazpigarrena gairik errepikatuena da, lehoia,
burua atzerantz biratuta eta hankak jasota dituela –gai hori
bederatzigarrenean eta hamargarrenean errepikatzen da–.
Zortzigarrena sirena bat da berriro ere; isatsari heltzen eta
ilea orrazten ageri da. Eta azkena ez da osorik kontserbatu,
eta, itxuraz, gizakiaren irudi bat da artzain-makilarekin edo
ezkerreko eskua jasotzen.

mariano, fue tomando importancia y hubo que adecuar los
temas para realzar el papel de María.

Enmarcando esta escena, a modo de arcada de medio
punto, se distribuyen once dovelas. El número de las dove-
las podría dar a entender que se trata de una iconográfica
muy concreta. Sin embargo, la temática de éstas no parece
corresponder a un programa predefinido. Estas imágenes
están inspiradas en los bestiarios medievales. Por orden, de
izquierda a derecha, se describirá cada una de ellas. En la
primera, encontramos dos aves de cuello largo que se giran
al centro para contemplar una flor. En la segunda hay una
figura que parece un felino que gira la cabeza. La tercera
es parecida a la segunda: otro felino que se muerde la cola.
La cuarta no se ha conservado en muy buen estado, pero
podría intuirse la presencia de un gallo o quizá el mismo
león, que vuelve su cabeza mientras levanta sus patas. La
quinta trata la imagen de un ave con garras, que sostiene
un pez. En la sexta, en el centro del conjunto iconográfico,
se distingue una sirena con doble cola. La séptima es el te-
ma más repetido, el león, que vuelve atrás su cabeza mien-

Elizaren ikuspegi orokorra / Vista general de la iglesia





Apaindura xebetasunak
kanpoaldean

Detalles decorativos
en el exterior



Ateburua elizpean

Dintel en el pórtico



Tínpanoa / Tímpano

Ikus dezakegunez, animalia fantastikoen eta sirenen gaia asko errepikatu da multzo ikonografiko honetan, baina ez du mezu argirik.

Irudi horiek kontraste handia egiten dute tinpanoko motibo nagusiarekin, hau da, Andre Mariaren irudiarekin. Normalean, programa ikonografiko berean ez dira bi gai horiek aldi berean agertzen. Bestalde, felidoak, lehoia, esaterako, berpizkundearen sinbolotzat interpretatzen dira, izan ere, Erdi Aroko bestiarioen arabera, kumeak jaio-tzean hiru egun hilda egoten ziren, aitzak hatsarekin bizia ematen zien arte.

Tinpano horrekin lotutako beste osagai bat elizpe berean kontserbatzen den dintela da. Bost irudi hegodunek osatzen dute, hiruak banatuta, baina ezkerreko muturreko azkena falta da.

Erdialdean krismoir hirukoiztar bat dago, Kristoren monogramaren irudikapena. X (ji) eta P (rho) greziar hizkiek osatzen dute, gainjarrita, eta alfa eta omega hizkiak alboan dituzte –gauza guztien hasiera eta amaiera, Kristo bezala–. Nafarroako krismoien ereduari jarraitzen dio, P hizkiaren baoaren barruan tilet batekin. Krismoiren bi aldeetan, ezkerrean eta eskuinean, lehoi hegodun bat dago, eta, horien ostean, sinbologia liturgiko handiko

tras levanta sus patas –tema que se repite en la novena y en la décima–. La octava vuelve a ser una sirena, agarrando su cola y peinándose. Y la última, que no se ha conservado en su totalidad, parece que se trata de una figura humana con un cayado o levantando su mano izquierda.

Como podemos comprobar, el tema de animales fantásticos y sirenas es muy repetido a lo largo de la descripción de este conjunto iconográfico, pero sin un mensaje claro.

Estas imágenes contrastan con la imagen mariana, el motivo principal del tímpano. Normalmente no suele ser común presentar estas dos temáticas en el mismo programa iconográfico. Por otro lado, los felinos, como el león, se interpretan como un símbolo de resurrección, ya que, según los bestiarios medievales, los cachorros al nacer pasaban tres días muertos, hasta que el padre los atrae a la vida con su aliento.

Otro elemento, relacionado con este tímpano, es un dintel, que también se conserva bajo el mismo pórtico, formado por cinco figuras aladas, distribuidas tres a tres, aunque falta la última del extremo izquierdo.

En el centro hay un crismón trinitario, la representación del monograma de Cristo. Está formado por las letras

pelikanoak. Izan ere, tradizioaren arabera, pelikanoak bere gorputzarekin elikatzen ditu kumeak. Ezkerreko azken irudia beste animalia fantastiko bat da, hegaztiaren gorputzarekin, sugearen isatsarekin, atzaparrekin eta felidoaren buruarekin. Amabirjinaren eta Haurraren irudia ez bezala, krismoiak eta dobelen multzoak berandukoagoak direla emate dute, XII. mendearen azken laurdenekoak.

Erdi Aroko tenpluen barruko oinarritzko beste osagai bat, kasu honetan ere ageri da, bataiarria da. Gaur egun elizaren angelu batean dago jarrita. Egitura sinplea du, ez du apaindurarik ez goiko aldean ez kopan, ezta oinarri zilindrikoan ere.

Testua eta argazkiak: JCHE/MLAI

griegas X (ji) y P (rho), superpuestas, y acompañado por las letras alfa y omega —principio y fin de todas las cosas, como Cristo—. Sigue las características de los crismones navarros, con una tilde en el interior del vano de la P. A ambos lados, a izquierda y derecha del crismón, aparece un león alado, y, tras éstos, unos pelícanos cargados de una fuerte simbología litúrgica ya que, según la tradición, alimenta con su propio cuerpo a sus crías. La última figura de la izquierda es otro animal fantástico con cuerpo de ave, cola de serpiente, garras y cabeza de felino. A diferencia de la imagen de la Virgen y el Niño, el crismón y el conjunto de las dovelas parecen más tardías, y próximas al último cuarto del siglo XII.

Otro elemento fundamental en el interior de los templos medievales, que también encontramos en este caso, es la pila bautismal. Hoy está dispuesta en un ángulo de la iglesia. Es de muy sencilla factura, sin decoración ni en su parte superior, ni en la copa, ni en la base cilíndrica.

Texto y fotos: JCHE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

CASTRO, C. de, 1915, pp. 218-219; GÓMEZ GÓMEZ, A., 1998, pp. 123-124; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 342; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, I, p. 240; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, pp. 108-110, fig. 42-43; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 49, 58; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, pp. 310-312.